

## BERRI OROKORRAK

2025eko maiatzaren 9an 30. zenbakia

### Artezkaritza-kontseiluaren bilera-data

**Maiatzaren 14an** izango da Artezkaritza-Kontseiluaren hurrengo bilera. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, [artezkaritza@udarregi.eus](mailto:artezkaritza@udarregi.eus) helbidera bidaliz jakinarazi dezakezue.



### Eskola kirola 2025/2026

Datorren ikasturterako Zirimara eta Eskola kiroleko (esku pilota, futbol, eskubaloi eta boleibol) **izen-ematea maiatzaren 12tik 23a bitarte** izango da.

[Hemen](#) informazioa eta izena emateko galdetegia.

[Hemen](#) eskeintzaren egutegi eta orduteiak.

#### **Beste eskaintzak:**

##### JUDO:

Noiz: Astelehen eta asteazkenetan

Ordua: LH1-2 (17:00 - 18:00)

LH3-4 (18:15 - 19:15)

LH5-DBH2 (19:15 - 20:15)

Lehenen aldiz izena eman behar dutenak, irailaren 8tik aurrera astelehen eta asteazkenetan 17:00etatik 18:00etara kiroldegiko tatamian egin dezake.

##### GIMNASIA ERRITMIKOA:

Informazioa: [info@tximeleta.eus](mailto:info@tximeleta.eus)

Telefona: 943116342/ 688683064



## Jangela-zerbitzuaren erabilera ekainean

Ekainaren 2tik 20ra HHko (3 eta 6 urte bitarte) eta LHko ikasleek eskolak goizez bakarrik izango dituzte, alegia, 9:00etatik 12:30era arte.

DBHko ikasleek, ekainaren 2tik 13ra lanaldi jarraia izango dute (8:25-14:30) eta ekainaren 16tik 20ra 8:25etik 12:30era.

Beraz, zuen semeak edo alabak **jangela-zerbitzua erabiliko duen**

**edo ez** jakitea beharrezkoa zaigu. Horretarako, **maiatzaren 19a** baino lehen, mesedez, [galdetegi hau](#) betetzea eskatu nahi dizuegu. **Etxera bakarrik joateko baimena** duen edo ez ere adierazi behar duzue.



## Arratsaldeko zaintza ekainean

Ekainaren 2tik 20ra eskolak goizez soilik izango dira, 9:00etatik 12:30etara. Horregatik, arratsaldeko zaintza zerbitzua (14:30etik 16:30era) antolatzen ari gara. Zerbitzuak aurrera egin ahal izateko gutxieneko taldea osatu beharko da. Zerbitzuaren kostua **70 €** izango da.

Horretarako, mesedez [galdetegi hau](#) bete **maiatzaren 23a baino lehen**.



## Euskaraldiko bingo musikatua

Datorren ostiralean, **maiatzak 16, arratsaldeko 16:30etan** hasita, **euskal sortzaileen** abestien bingo musikatua ospatuko dugu Agerialdeko patioan.

Bingo txartelak aldez aurretik eskatu beharko dira (irakasleari) eta egunean bertan seme-alabarekin helaraziko zaizkizue.

Txartel bakoitzaren prezioa 50 zentimokoa izango da; dirua gelara ekarri beharko da. Animatu parte hartzera! Ikastolan ere elkar mugituz egingo dugu!



## Euskaraz ez dakiten gurasoentzat hitzaldia

Datorren asteartean, maiatzak 13, arratsaldeko 15:30etan hasita euskaraz ez dakiten gurasoentzat hitzaldia eskeiniko da ikastolako jangelan.

Hitzaldia UEMAko teknikariak emango du eta udala eta ikastolaren lankidetzaz antolatu da. [Horma-irudia](#)



UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA

## Erlezain Eguna

**Bihar**, Izan Hartxintzar ekimenaren barne, Ikastolako DBH 3. Mailako ikasleak izango ditugu SEASKAren ekimen berezi baten alde: ERLEZAIN.

Ipar Euskal Herriko ikastolen sareari laguntza emateko modua dugu ekimen hau. Bertaratu

zaitetzte frontoi inguruan jarriko dugun gure mahaira eta informatuko zaituztegu. Animatu eta etorri!

Bestalde, datorren aste osoan zehar idazkaritzan salgai egongo dira ere erlezain txapak.



## Izan Hartxintzar Eguna

**Bihar** Zarauzko Salbatore Mitxelena Ikastolari laguntzeko eguna antolatu da Usurbilen (tailerrak, bazkaria eta beste). Hezkuntza Sailak ezarritako isunari erantzuteko elkartasun- ekimena izango da eta hainbat ekintza antolatu dira. Hemen [egitaraua](#)

Animatu parte hartzera!!



## Herri Urrats

**Igande honetan**, maiatzak 11, Senperen Herri Urrats, Iparraldeko Ikastolen jaia ospatuko da. Informazio gehiago

[www.herriurrats.eus](http://www.herriurrats.eus) webgunean.

Animatu eta parte hartu!



# HAUR HEZKUNTZA

## Zorriak

**HH 3 eta 5ko** ikasle batzuen zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu. [NEURRI HORIEK](#)

**ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA**



# LEHEN HEZKUNTZA

## LH1: igeriketa-plana

Maiatzaren 19tik ekainaren 6ra, biak barne, LH 1eko ikasleek igeriketa-ikastaroa egingo dute. [Hemen](#) argibideak.



## LH6. mailako familientzat oharra

Datorren ikasturtean DBH 1. mailan egongo den ikasle bakoitzak Chromebook bat erosi behar du.

Erosketa online egin beharko duzue Xenon-ek horretarako prestatu duen webgunean. Erosketa prozesuaren azalpen osoa [hemen](#) duzue.

Ikastetxearen kodea UDIK2539 da. **Eskaera egiteko azken eguna maiatzaren 31 da.**

Zailtasun ekonomiko edo teknikoak badituzue, jar zaitezte ikastolarekin harremanetan eta lagunduko dizuegu.



## Irteera LH1

Maiatzaren 16an (eguraldiak laguntzen badu), egun osoko irteera egingo dugu Oriora. Beti bezala ikastolan elkartuko gara eta ondoren trenez joango gara bertara.

ZER ERAMAN BEHAR DUTE?

-Hamaiketako, bazkaria eta ura

-Erropa eta oinetako erosoak

-Eguzkitako krema emanda (beharrezkoa bada)

-**MUGI txartela** (argazkirik gabeko bada, ziurtatu saldo nahikoa duela: 3,86€)

Oriotik bueltan, herriko frontoian jaso beharko dituzue zuen seme-alabak 16:30tan.

Arazorik bazenute, tutoreekin harremanetan jarri.



## Ipuin-kontaketa

Maiatzaren 14an, asteazkena, 18:00etan, Sutegi Liburutegian, IPUIN-KONTAKETA, MAITE FRANKOren eskutik. Saioa **LH 1etik LH 3ra** (biak barne) bitarteko ikasleei eskainiko zaie. Iraupena, ordubete ingurukoa izango da. [Horma-irudia](#)



# DBH

## Baionara egindako irteeraren kobrantza

**Astelehenean**, maiatzak 12, **DBH 3ko** ikasleek Baionara egindako ikasbidaiaren 2. zatia kobratuko da.

Kostua 72,50 € izan da, 30 €-ko aurrerakina egina dagoenez, **kobrantza 42,50 €**-koa izango da.

